

# GURE EKOSISTEMAKO IRUDIAREN AZALPENA

**Taldea:** 5. taldea

**Izen-abizenak:** Aritz Mendia, Jon Intxausti, Monika Santos eta Ainhize Ulibarri.

**Izenburua:** Karibe itsasoko arrainak eta narrastiak.

EKOSISTEMAK gaia adierazteko egingo dugun irudiaren ikusizko baliabideak txosten honetan azalduko ditugu. Azalpen honen bitartez irudi proiektuaren planifikazioa egingo dugu. Showbieren bitartez bidaliko dugun txosten hau proiektuaren ebaluaziorako errubrikaren bigarren atalean baloratuko da.

1. **Irudiaren mezua eta efektuak.** Zer adierazi nahi dugu irudiaren bitartez? Zeintzuk dira irudiak adierazten dituen efektuak?

Mezua: Karibe itsasoko arrainak eta narrastiak ur korrontea norabide berean jarraitzen dute.

Efektuak: **mugimendua, bizitasuna, abiadura, kontrastea eta norabidea.**

2. **Ikus-elementuak.** Irudian erabiliko ditugun lerro eta koloreak azalduko ditugu. Azalpena idazteko **ZER, NOLA eta ZERTARAKO** egiturari jarraituko diogu, erabilitako ikus-elementuak eta hauen ezaugarriak irudiaren mezua eta efektuarekin harremantzeko.

- Lerroak (lerro motak eta hauen ezaugarriak):

Lerro kurbatua erabili ditugu arrainaren atzekaldean **mugimendua, abiadura eta ezkerretik eskumarako norabidea** adierazteko eta arrainaren formak egiteko.

Lerroaren intentsitatea arrainen formak garrantzia izateko eta hainbat xehetasun nabarmentzeko erabili ditugu.

Lerroaren zabalera arrainaren atzean eta korrontearen **ezkerretik eskumarako norabidea** adierazteko.

- Koloreak (kolore motak eta hauen ezaugarriak):

Lerroaren koloreak era honetan erabili ditugu: itsasoan urdin gama erabili dugu eta arrainak, dortoka eta landaredia kolore biziz margotu **kontrastea eta bizitasuna** sortzeko.

3. **Irudiaren konposaketa.** Irudian erabiliko dugun konposaketa azalduko dugu. Azalpena idazteko **ZER, NOLA eta ZERTARAKO** egiturari jarraituko diogu, erabilitako konposaketa eta hauen ezaugarriak irudiaren mezua eta efektuarekin harremantzeko.

- Konposaketa (simetria, asimetria, erritmoa... eta honen ezaugarriak):

Gure irudia egiteko erabiliko dugun formatua horizontala oso luzea da, **ezkerretik eskumarako norabidea** adierazteko.